

## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

Ordizian, **2022ko urriaren 6a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **6 de octubre de 2022** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

### **BERTARATUAK:**

#### **LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre,

#### **BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

Jon Ander Caballero Zubelzu  
Miren Alazne Sukia Galparsoro

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)  
ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN  
(Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)  
EAJ/PNV  
PSE-EE (PSOE)

Bittor Bolinaga Alzelai  
Iñaki Dubreuil Churruca

#### **BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Maitane Alvarez Garziandia

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

#### **IDAZKARIA**

Ainhoa Esnaola Zubeldia

### **BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**


#### **AZTERTUTAKO GAIAK**

#### **ASUNTOS TRATADOS**

#### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK: ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

- 2022ko uztailaren 14a ohiko bilkurako akta zirriborroa onartzea.
- Azoka eta jaietarako laguntzaileak hautatzeko lan-poltsa eratzeko oinarriak.
- Oinarri arautzaileak, Ordiziako Udaleko artxibo eta idazkaritza administrari lan-postua behin betiko hornitzeko meritu lehiaketa.

- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 14 de julio de 2022.*
- Bases para la creación de una bolsa de trabajo de auxiliares para organizar ferias y eventos especiales.*
- Bases reguladoras para la provisión definitiva por concurso de méritos de un puesto de administrativo de archivo y secretaría del Ayuntamiento de Ordizia.*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

4. Oinarri arautzaileak, Ordiziako Udaleko diruzain eta diru-bilketa administrari lan-postua behin betiko hornitzeko meritu lehiaketa.

5. Ordiziako Udaleko Kultura saileko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzea.

6. Ordiziako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko bono kanpainaren 2022ko oinarriak eta deialdia onartzea.

7. Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzen zaizkion eskumenen buruzko 2022/1073 Alkatetza dekretuaren berri ematea.

8. 2022ko ekainaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren 2022/0939 alkatetzaren dekretu bidezko zuzenketaren berri ematea, Buztuntzaldeko 7. lurzatiaren xehetasun-azterlanari hasierako onespina ematen diona.

9. Zenbait txosten eta eskaera.

10. Galde-eskeak.

4. *Bases reguladoras para la provisión definitiva por concurso de méritos de un puesto de administrativo de tesorería y recaudación del Ayuntamiento de Ordizia.*

5. *Aprobación de las bases y convocatoria de subvenciones del departamento de Cultura del Ayuntamiento de Ordizia.*

6. *Aprobación de las bases y convocatoria de 2022 para la campaña de bonos para incentivar el comercio local, la hostelería y el sector servicios de Ordizia.*

7. *Dación de cuenta del decreto de alcaldía nº.2022/1073 de delegación de competencias a la Junta de Gobierno Local.*

8. *Dación de cuenta de la corrección mediante el decreto de alcaldía 2022/0939 del acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 16 de junio de 2022, por el que se aprueba inicialmente el Estudio de Detalle de la parcela de Buztuntzaldea 7, del A.I.U "8 Buztuntza"*

9. *Informes y solicitudes varias.*

10. *Ruegos y preguntas.*


## GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIK:

### ORDUTEGIA

**HASIERA ORDUA: 13:00ean**

**AMAIERA ORDUA: 13:37an**





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2022ko uztailaren 14ko bilkurako akta onartzea.**

**1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 14 de julio de 2022**

Proposamena

Propuesta

**2022ko uztailaren 14ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 14 de julio de 2022***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira.

**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- Azoka eta jaietarako laguntzaileak hautatzeko lan-poltsa eratzeko oinarriak.**

**2.- Bases para la creación de una bolsa de trabajo de auxiliares para organizar ferias y eventos especiales.**

Proposamena

Propuesta

**AURREKARIAK:**


**ANTECEDENTES:**

Kontuan hartuz Azoka eta ekitaldi berezietarako laguntzaileak hautatzeko beharra, urtean zehar behar diren aldi baterako beharrak betetzeko.

*Considerando la necesidad de seleccionar auxiliares para ferias y eventos especiales para cubrir las necesidades temporales a lo largo del año.*

Kontuan hartuz, hautatutako pertsonak Ordiziako Udalarekin behin-behineko kontratu bat sinatu behar dutela, egun

*Considerando que las personas seleccionadas deben suscribir un contrato laboral temporal con el Ayuntamiento de*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

indarrean dagoen legediari jarraiki.

*Ordizia, de conformidad con la legislación vigente en la actualidad.*

### AKORDIO PROPOSAMENA:

### PROPUESTA DE ACUERDO:

**LEHENA.-** Ordiziako Udaleko Azoka eta ekitaldi bereziak antolatzeko laguntzaileak eratzeko lan-poltsaren oinarriak eta deialdia onartzea, zeinak Akordio honi Eranskin gisa atxikitzen zaizkion.

**PRIMERO.-** *Aprobar las bases y convocatoria de la bolsa de trabajo para la constitución de Auxiliares de Organización de Ferias y Eventos Singulares del Ayuntamiento de Ordizia, que se adjuntan como Anexo al presente Acuerdo.*

**BIGARRENA.-** Oinarriak Udalaren web orrian [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus) eta iragarki-taulan argitaratzea.

**SEGUNDO.-** *Publicar las bases en la página web del Ayuntamiento [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus) y en el tablón de anuncios.*

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jauna: orain arte, kontratazioa Biok-en bidez egiten da eta arazoa, batik bat, aurreko urtean lan-legedia aldatu izanetik dator. Beste leku batzuetako ereduak ikusita, lan-poltsa bat eratzearabaki da, irekia izango dena eta bertara herriko gazteak aurkeztu daitezke.


Sr. Alcalde: *hasta ahora, la contratación se realiza a través de Biok y el problema viene fundamentalmente de la modificación de la legislación laboral del año anterior. Vistos otros modelos se ha decidido crear una bolsa de trabajo, que será abierta y a la que se pueden presentar los jóvenes del pueblo.*

Iñaki: nire ustez, profila ikusita, gehiegizkoa iruditzen zait euskara menderatzea eskatzea. Hemen bi profil bereizi beharko lirateke: bata, muntaietan aritzen dena, eta bestea, publikoari informazioa ematekoa. Postu guztietan euskararen eskakizuna ezin da berdina izan.

Iñaki: *visto el perfil, me parece excesivo pedir que se domine el Euskera. Aquí habría que distinguir dos perfiles: uno, el que se dedique a los montajes y otro, el de información al público. En todos los puestos la exigencia del euskera no puede ser el mismo*

Alkate jauna: Udalean badaude zenbait antzinako postu, non ez den euskarazko profila eskatzen baina berrietan, denetan eskatu da. Hain justuki, dominatzearena euskararen eskakizuna malgutzeko ezarri da, gutxieneko gaitasun bat egoteko.

Señor Alcalde: *en el Ayuntamiento hay varios puestos antiguos en los que no se pide el perfil de euskera pero en los nuevos, se ha pedido en todos. Precisamente, lo de dominar se ha establecido para flexibilizar la exigencia de euskera, para que haya una capacidad mínima.*



Iñaki: bestalde, trafiko bidegurutzeen kontrolari dagokionez, udaltzaingoaren eginkizuna da.

*Iñaki: por otro lado, respecto del control de cruces de tráfico, es una función de la policía municipal.*

Alkate jauna: ez dute trafikoaren zaintza egiten, aldiz, debekuzko seinaleren bat ezartzen bada, euren funtzioa da informatzea jendeari hortik ezin dutela igaro.

*Señor Alcalde: no hacen labores de vigilancia del tráfico, su función es la de informar a los conductores sobre señales prohibitivas que se puedan poner.*

Mila Sukia: nik ondo ikusten dut egoera hau erregularizatzea eta jende gazteari aukera ematea.

*Mila Sukia: Yo veo bien regularizar esta situación y dar la oportunidad a la gente joven.*

Iñaki: nik uste dut pankartak kentzeko funtzioak beste langile batzuek hartu beharko lituzketela.

*Iñaki: yo creo que las funciones como retirar las pancartas, tendría que asumirlo otro personal.*

Alkate jauna: pankartak erretiratzeko eskatu zitzaieen muntaia lanetan ari zirenean. Oraindik ekitaldia hasi gabe zegoen eta normalean garbitzaileek kentzen dituzte. Gainera, gauza da edifizio itxi batean ezin dela pankartarik ezarri eta horregatik esan zitzaieen kanpoan jartzeko.

*Señor Alcalde: se les pidió que retiraran las pancartas cuando estaban realizando tareas de montaje. Aún no había comenzado el acto y normalmente es el servicio de limpieza quien las retira. Además, el asunto es que en un edificio cerrado no se pueden colocar pancartas y por eso se les dijo que las pusieran fuera.*

Iñaki: Ni abstenitu egingo naiz.

*Iñaki: yo me voy a abstener.*

Mila Sukia: nik planteatu nahi dut ea aukerarik dagoen aniztasunaren gaia dela-eta, erreserba kupo bat ezartzea ezgaitasuna duten pertsonentzako.

*Mila Sukia: yo quiero plantear si hay posibilidades por el tema de la diversidad, establecer un cupo de reserva para las personas con discapacidad.*

Idazkariak adierazi du jarri daitekeela, beti ere, postua egikaritzeko gaitasun funtzionala badute.


*El Secretario dice que se puede poner siempre que tengan capacidad funcional para el desempeño del puesto.*

Bittor Bolinaga: ni Iñakirekin ados nago. Ikusita zein jende apuntatzen den, ez dakit zenbateraino eskatuko nukeen euskara jakitea. Agian, euskara ulertzea nahikoa litzateke.

*Bittor Bolinaga: estoy de acuerdo con Iñaki. Sabiendo qué gente se apunta, no sé hasta qué punto pediría el saber euskara. Tal vez sería suficiente que lo entendieran.*

Elkarrizketa honekin, bilkurako kideak zenbait aldaketa egitea adostu dituzte

*Después de estas intervenciones, los miembros de la sesión acuerdan introducir*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

Oinarrietan:

*una serie de modificaciones en las Bases:*

- |  |   |
|--|---|
| a) Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoa ezartzea. | a) <i>Establecimiento del cupo de reserva para personas con discapacidad.</i> |
| b) Euskararen gutxieneko ulermena izatea.                      | b) <i>Tener un mínimo de comprensión del euskera.</i>                         |
| c) Trafikoko informatzea.                                      | c) <i>Informar en los cruces de tráfico.</i>                                  |

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 4 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 1 (PSE-EE (PSOE))

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Oinarri arautzaileak, Ordiziako Udaleko artxibo eta idazkaritza administrari lan-postua behin betiko hornitzeko meritu lehiaketa.**

**3.- Bases reguladoras para la provisión definitiva por concurso de méritos de un puesto de administrativo de archivo y secretaría del Ayuntamiento de Ordizia.**

#### Proposamena

#### Propuesta

##### **AURREKARIAK:**

Kontuan hartuz gaur egun Ordiziako Udaleko lanpostuen zerrendan agertzen den Artxibo eta Idazkaritza administrari lanpostua betetzeko beharra.

Kontuan hartuz orain arte ez dela lortu lanpostua behin betiko hornitzea.


Kontuan hartuz, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren baitan, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, bere 79. artikuluan, lehiaketa lanpostuak hornitzeko prozeduratzat onartzen duela eta Euskal

##### **ANTECEDENTES:**

*Considerando la necesidad de cubrir el puesto de Administrativo de Archivo y Secretaría que actualmente figura en la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Ordizia.*

*Considerando que hasta la fecha no se ha conseguido proveer con carácter definitivo el puesto.*

*Considerando el concurso como procedimiento de provisión de puestos de trabajo por art. 79 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, y previsto en Ley 6/1989, de 6 de*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean ere aurreikusten dela.

*julio, de la Función Pública Vasca.*

### **AKORDIO PROPOSAMENA:**

### **PROPUESTA DE ACUERDO:**

LEHENA.- Ordiziako udaleko LPZan dagoen Artxibo eta Idazkaritza administrari lan postua behin-betiko hornitzeko merezimendu lehiaketaren oinarriak eta deialdia onartzea, zeinak Akordio honi Eranskin gisa atxikitzen zaizkion.

*PRIMERO.- Aprobar las bases y convocatoria del concurso de méritos para la provisión definitiva del puesto de trabajo de Administrativo de Archivo y Secretaría que figura en la RPT del Ayuntamiento de Ordizia, anexas al presente Acuerdo.*

BIGARRENA.- Oinarriak Udalaren web-orrian [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus) eta iragarki-taulan argitaratzea.

*SEGUNDO.- Publicar las bases en la página web [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus) y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Ordizia.*

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate Jauna: aspalditik datorren gaia da. Orain arte zain geunden hau eta hurrengo puntuko oinarriak onartzeko, batik bat, kontuhartzaitzako berrantolaketari begira. Arretatik L.M.D., M.R.R.en lekura pasatu zen eta zerbitzu eginkizunetan jarri zen. Bestalde, kontuhartzaitzako I.E.U. orain arte zegoen lan-postua aldatu egin da eta orain administrari lan-postua da. Irailean bertan jarraitzeko asmoa adierazi zuen eta orain behin-betiko formalizatu behar da.

*Señor Alcalde: es un tema que viene de tiempo atrás. Hasta ahora estábamos a la espera de que se aprobaran estas propuestas y bases, sobre todo de cara a la reordenación de intervención. L.M.D.de atención al ciudadano, pasó en comisión de servicios, al puesto vacante de M.R.R. Por otro lado, el puesto de I.E.U. de Intervención ha cambiado, ahora es administrativo. En septiembre anunció su intención de continuar en el mismo y ahora debe formalizarse definitivamente.*

Honela beraz, oinarri hauekin merezimendu-lehiaketa jarriko da martxan.

*Así pues, y con éstas bases, se pondrá en marcha el proceso por concurso de méritos.*


Iñaki: hau batzorde paritariotik pasa da?

*Iñaki: ha pasado por la Comisión Paritaria?*

Adur: lehenago langile batzordearekin hitz egin eta adostu zen. Zain geunden interesdunek zer esango zuten. Era berean, adierazi datorren asterako batzorde paritarioa aurreikusten dela.

*Adur: antes se habló y acordó con el comité de empresa. Estábamos esperando a la respuesta de las interesadas. Asimismo, indicar que para la próxima semana se prevé la realización de una comisión paritaria.*

### Bozketa



Bozketan egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 4 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 1(PSE-EE (PSOE) )

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Oinarri arautzaileak, Ordiziako Udaleko diruzain eta diru-bilketa administrari lan-postua behin betiko hornitzeko meritu lehiaketa**

Proposamena

**AURREKARIAK:**

Kontuan hartuz gaur egun Ordiziako Udaleko lanpostuen zerrendan agertzen den Diruzaintzako eta Diru-bilketako administrari-lanpostua betetzeko beharra.

Kontuan hartuz orain arte ez dela lortu lanpostua behin betiko hornitzea.

Kontuan hartuz, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren baitan, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginan onartzen duenak, bere 79. artikuluan, lehiaketa lanpostuak hornitzeko prozeduratzat onartzen duela eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean ere aurreikusten dela.

**AKORDIO PROPOSAMENA:**

**LEHENA.-** Ordiziako udaleko LPZan dagoen diruzain eta diru-bilketa administrari lan postua behin-betiko

**4.- Bases reguladoras para la provisión definitiva por concurso de méritos de un puesto de administrativo de tesorería y recaudación del Ayuntamiento de Ordizia**

Propuesta

**ANTECEDENTES:**

*Considerando la necesidad de cubrir el puesto de Administrativo de Tesorería y Recaudación que actualmente figura en la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Ordizia.*


*Considerando que hasta la fecha no se ha conseguido proveer con carácter definitivo el puesto.*

*Considerando el concurso como procedimiento de provisión de puestos de trabajo por art. 79 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, y previsto en Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.*

**PROPUESTA DE ACUERDO:**

**PRIMERO.-** *Aprobar las bases y convocatoria del concurso de méritos para la provisión definitiva del puesto de trabajo de Administrativo de Tesorería y*





## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

hornitzeko merezimendu lehiaketaren oinarriak eta deialdia onartzea, zeinak Akordio honi Eranskin gisa atxikitzen zaizkion.

*Recaudación que figura en la RPT del Ayuntamiento de Ordizia, que figuran anexas al presente Acuerdo.*

**BIGARRENA.-** Oinarriak Udalaren web-orrian [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus) eta iragarki-taulan argitaratzea.

**SEGUNDO.-** *Publicar las bases en la página web [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus) y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Ordizia.*

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 4 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 1(PSE-EE (PSOE) )

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Ordiziako Udaleko Kultura saileko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzea**

**5.- Aprobación de las bases y convocatoria de subvenciones del departamento de Cultura del Ayuntamiento de Ordizia**


### Proposamena

### Propuesta

Dirulaguntzaren xedea elkarteen kultur proiektuak eta urteko programak finantzatzea da. Halaber, 2022. ekitaldian urteurren berezia ospatzen duten taldeen programa bereziak ere finantzatu nahi dira.

Dirulaguntzaren esleipena norgehiagoka bidezkoa izango da.

Programa honen helburu diren dirulaguntzetarako esleitutako zenbatekoa 9.900.-€koa da eta -481.01.334.00.0133 (4.900.-€) eta 481.03.334.00.0133 (5.000.-€)– zenbakidun partiden kontura finantzatuko da. 2022ko aurrekontuan nahikoa kreditu dago partida hauetan, kontu hartzaileak 2022ko abuztuaren 1ean eginiko txostenean adierazten duen moduan.



2022ko uztailaren 28an idazkariak aldeko txostena egin zuen.

Hori guztia ikusita,

**PROPOSATZEN dut:**

1.- Ordiziako Udaleko Kultura saileko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzea.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jauna: urtero onartzen diren dirulaguntzak dira. Gehienak dirulaguntza izendunak dira kultura alorrean ematen direnak eta hauek norgehiagoka bidezkoak soilik dira.

Señor alcalde: son subvenciones que se aprueban anualmente. En su mayoría son subvenciones nominativas que se conceden en el ámbito de cultura y éstas son exclusivamente de concurrencia competitiva.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)


**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



**6.- Ordiziako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko bono kanpainaren 2022ko oinarriak eta deialdia onartzea.**

**6.- Aprobación de las bases y convocatoria de 2022 para la campaña de bonos para incentivar el comercio local, la hostelería y el sector servicios de Ordizia.**

Proposamena

Propuesta

**AURREKARIAK:**

**ANTECEDENTES:**

Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bere 17.125 artikuluan, udalei esleitzen die, berezko eskumen gisa, tokiko garapen ekonomiko eta soziala.

*La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuye en su artículo 17.1.25, como competencia propia a los municipios, el desarrollo local económico y social.*

Hala, Ordiziako Udalak eskumen honi jarraiki, kanpaina honen bidez, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko kontsumo-aktibitatea sustatu nahi du.

*En base a esta competencia, el Ayuntamiento de Ordizia, a través de esta campaña de bonos quiere fomentar la actividad comercial, hostelería y de servicios del municipio.*

Horretarako, bono kanpaina bat jarri nahi da martxan. Kanpaina honekin 50 euroko 1.500 bono jarriko lirateke zirkulazioan, bezeroak 30 euro ordainduko dituelarik eta Udalak 20. Horrela, herriko negozioetan 75.000 euro sartzea lortu nahi da.

*Para ello, se pretende poner en marcha una campaña de bonos. En dicha campaña se van a poner en circulación 1.5000 bonos por valor de 50 euros, de los cuales, 30 euros pagará la clientela y los 20 restantes el Ayuntamiento. Con ello, se inyectarán 75.000 euros en los negocios de la localidad.*

Hori kontuan hartuta, hurrengo akordio proposamena egiten da:

*Teniendo en cuenta todo ello, se somete la siguiente*

**AKORDIO PROPOSAMENA:**


**PROPUESTA DE ACUERDO:**

**LEHENENGOA.-** Ordiziako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko bonuen salmenta kanpaina arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzea.

**PRIMERO.-** Aprobación de las bases y convocatoria que rigen la campaña de venta de bonos para incentivar el comercio local, la hostelería y el sector servicios de Ordizia.

**BIGARRENGOA.-** Oinarriak eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

**SEGUNDO.-** Publicar las bases y la convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.



Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Iñaki: aurreko urteko balorazioa ez Iñaki: *No presentasteis la valoración de la zenuten aurkeztu. campaña del año pasado.*

Alkate jauna: Teknikariari eskatuko diogu Sr.Alcalde: *Se la pediremos al Técnico y os eta pasako dizuegu. la pasaremos.*

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak:** 5 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**7.- Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzen zaizkion eskumenen buruzko 2022/1073 Alkatetza dekretuaren berri ematea.**

**7.- Dación de cuenta del decreto de alcaldía n°.2022/1073 de delegación de competencias a la Junta de Gobierno Local.**

**2022/1073. DEKRETUA**


**DECRETO N° 2022/1073**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

**A LA VISTA DE :**

Ikusirik 2022/095 Dekretuan adierazitakoa, zeinetan Alkatetza honek Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zizkion eskumenak bertan behera utzi ziren.

*Considerando lo dispuesto en el Decreto 2022/095, por el cual se dejaron sin efecto las delegaciones realizadas por esta Alcaldía a favor de la Junta de Gobierno Local.*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

Ikusirik, Alkatetza honek eskuordetzeen inguruan eginiko hausnarketa, Udalaren funtzionamenduaren eraginkortasun zein efizientziaren ingurukoa, Tokiko Gobernu Batzarrari zenbait eskumen eskuordetzeko beharra ikusi da, gardentasunari men egin eta era berean, zenbait erabaki hartzerakoan kide anitzeko organoaren hausnarketa sustatze aldera,

*Considerando la reflexión realizada por esta Alcaldía en relación a las delegaciones, relativo a lograr una mayor eficiencia y eficacia en el funcionamiento del Ayuntamiento, se ha considerado necesario delegar en la Junta de Gobierno Local, para así promover la transparencia, así como la reflexión necesaria para adoptar determinados acuerdos en un órgano colegiado, determinadas competencias.*

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, idatziarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuta, ondorengoa

*A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de conformidad con la misma en uso de las atribuciones que me están legalmente conferidas en virtud del artículo 21.1 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, por medio de la presente*

### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

### **TENGO A BIEN :**

**LEHENA.-** 2019ko uztailaren 18ko 2019/0665 Dekretu bidez eratu zen Tokiko Gobernu Batzordeak, Alkatetza honek eskuordetuta, jarraian zehazten diren eskumenak izango ditu:

**PRIMERO.-** La Junta de Gobierno Local conformada según Decreto 2019/0665 de 18 de julio, ostentará, por delegación de esta Alcaldía, las siguiente atribuciones:

#### **1. HIRIGINTZA:**

#### **1. URBANISMO:**

- Espresuki Udalbatzaren eskumenekoak ez diren antolamendu orokorraren garapenerako tresnen onarpena (hasierakoa eta behin-behinekkoa) eta baita hirigintza kudeaketa eta hirigintza proiektuen kudeaketarako tresnen onarpena ere.


- La aprobación de los instrumentos de planeamiento de desarrollo del planeamiento general no expresamente atribuidas al Pleno (inicial y provisional) así como la aprobación de los instrumentos de gestión urbanística y proyectos de urbanización.

- Obra handietarako baimenak ematea.

- Concesión de licencias de obra mayor.

- Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak, II A Eranskinean jasotako jarduera klasifikatuen jarduera baimenak ematea.

- Concesión de licencias correspondientes a instalaciones y actividades clasificadas, incluidas en el Anexo II A de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, de Protección General del Medio Ambiente.



- Aurri espedienteak ebaztea, berehalako aurrigoak izan ezik.
- Hirigintza esparruko espediente zigortzaileak ebaztea.
- Baimenen edo lizentzien iraungipen-espedienteak ebaztea. Zarata mapak eta ekintza planak onartzea, urriaren 16ko Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2021 Dekretuaren 18 eta 19. artikuluen arabera, eta baita klima-aldaketaren aurkako ekintza-planak onartzea ere, Udalbatzaren eskumena ez denean.
- *Resolución de expedientes de ruina, salvo ruina inminente.*
- *Resolución de expedientes sancionadores en materia urbanística.*
- *Aprobación de los mapas de ruido y planes de acción de conformidad con los artículos 18 y 19 del Decreto 213/2012 de 16 de octubre, de Contaminación Acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la aprobación de los planes de acción contra el cambio climático, cuando no sean competencia del Pleno.*

## 2. GIZA BALIABIDEAK:

- Lan eskaintza publikoa onartzea, Udalbatzarrak onartutako aurrekontuen eta plantillaren arabera.
- Langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako oinarriak onartzea.
- Diziiplina-espedienteak erabakitzea.

## 3. DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK


- Eskaeren arteko lehia bidez laguntzak eta dirulaguntzak emateko deialdia onartzea, nahiz horiek erabakitzea.

## 2. RECURSOS HUMANOS:

- *La aprobación de la oferta de empleo de acuerdo con el presupuesto y la plantilla orgánica aprobados por el pleno.*
- *Aprobación de las bases y convocatorias para la selección del personal y provisión de puestos de trabajo.*
- *Resolución de expedientes disciplinarios.*

## 3. SUBVENCIONES Y AYUDAS:

- *Aprobación de la convocatoria para la concesión de ayudas y subvenciones en régimen de concurrencia competitiva, así como su resolución.*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

Honako hauek eskuordetzearen esparrutik kanpo daude eta, beraz, Alkatezaren esku geratzen dira: alde batetik, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzei buruzkoak, 22.2 artikuluan aurreikusten duen zuzeneko laguntza eta diru-laguntza oro, eta horien ondorengo formalizazio-hitzarmenak sinatzea; eta, bestetik, gizarte-larrialdiko planen, banan banako laguntza planen eta abarren arabera baimentzen diren gizarte arloko laguntzak.

*Quedan fuera del ámbito de la delegación efectuada y por consiguiente se reserva la Alcaldía la concesión de todo tipo de ayudas y subvenciones directas previstas en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como la suscripción de los subsiguientes convenios de formalización y las ayudas de tipo social que se autorizan conforme a los planes de emergencia social, ayudas individualizadas, etc.*

### 4. ONDASUNAK:

- Ondasunak eta eskubideak erostea, eta ondarea besterentzea, horien balioa baliabide arrunten %5etik %10era bitartean dagoenean.
- Bere eskumeneko arloan udal jabetzako ondasunak doan erabiltzen lagatzeko erabakiak hartzea, baldin eta iraupena urtebetekoa edo gehiagokoa bada.

### 4. BIENES:


- *Adquisición de bienes y derechos y enajenación del patrimonio en los casos en que su valor esté comprendido entre el 5 y el 10% de los recursos ordinarios.*
- *Adopción de acuerdos de cesión de utilización gratuita de los bienes de propiedad municipal en materia de su competencia, en el supuesto de que la duración sea de un año o superior.*

**BIGARRENA.-** Inguruabar hau berariaz adieraziko da eskuordetzaren xede diren gaiei buruz Tokiko Gobernu Batzarrak hartzen dituen erabakietan, eta eskuordetu gabeko gaiei buruz organo eskuordetza-emaike honek hartzen dituen ebazpenen balio bera izango dute erabaki horiek.

**SEGUNDO.-** *Esta circunstancia se hará constar expresamente en los acuerdos que adopte la Junta de Gobierno Local sobre las materias objeto de delegación, que tendrán la misma validez que las resoluciones que adopte este órgano delegante sobre las materias no delegadas.*

**HIRUGARRENA.-** Eskuordetzak oraingo Udalbatzaren agintaldian izango du eragina. Dena den, epealdi hori amaitu aurretik eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, eskuordetza aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

**TERCERA.-** *La delegación estará en vigor en el mandato del actual Pleno. No obstante, antes de la finalización de dicho período y previo cumplimiento de los requisitos formales, podrá modificarse o anularse la delegación.*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

**LAUGARRENA.-** Dekretu hau Tokiko Gobernu Batzarrari helaraztea. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

**CUARTO.-** *Dar traslado del presente Decreto a la Junta de Gobierno Local, así como al Pleno en la primera sesión que se celebre; y publicarlo, un extracto, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.*

**BOSGARRENA.-** Erabaki honek eragina izango du sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**QUINTO.-** *La presente resolución surtirá efectos desde el día siguiente a la firma de la misma.*

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jauna: abuztuan, festen ondoren, bertan behera gelditu ziren Dekretu baten bidez TGBean eskuordetutako eskumenak eta irailera arte ez itzaroteko, Dekretu bidez onartu ziren erabakiak. Era berean, zenbait alderdi txukuntzeko Dekretu berri bat ematea egokitzat jo zen eta hori da ekartzen dena.

Señor Alcalde: *en agosto, después de las fiestas, se suspendieron las competencias delegadas en la Junta de Gobierno Local por Decreto y para no esperar a septiembre, se aprobaron los acuerdos por Decreto. Asimismo, se consideró oportuno dictar un nuevo Decreto para ordenar determinados aspectos y esto es lo que se trae.*

Iñaki: hirigintza alorrean ez du zehazten gaiak aurretiaz Planeamenduaren aholku batzordetik pasa behar dutela.

Iñaki: *en materia urbanística no especifica que los temas deban pasar previamente por la comisión asesora de Planeamiento.*

Alkateak adierazi dio bi gauza ezberdin direla, izan ere, Dekretu honetan soilik alkatearen eskumenez ari gara, ez beste objektu batez.

El Sr. Alcalde le indica que se trata de dos cosas distintas, ya que en este Decreto nos estamos refiriendo exclusivamente a las competencias del Alcalde y no a otro objeto.

Iñakik adostasuna adierazi dio.

Iñaki: *Le demuestra su conformidad.*

**Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.**




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**8.- 2022ko ekainaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren 2022/0939 alkatetzaren dekretu bidezko zuzenketaren berri ematea,**

**8.- Dación de cuenta de la corrección mediante el decreto de alcaldía 2022/0939 del acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 16 de junio de**





Ordiziako Udala

2022ITGB0015

**Buztuntzaldeko 7. lurzatiaren  
xehetasun-azterlanari hasierako  
onespena ematen diona**

**2022, por el que se aprueba  
inicialmente el Estudio de Detalle de la  
parcela de Buztuntzaldea 7, del A.I.U “8  
Buztuntza”**


**2022/0939. DEKRETUA**

**DECRETO N° 2022/0939**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

**A LA VISTA DE :**

1. Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, 2022ko ekainaren 16koa, HIE 8 Buztuntzako Bustuntza Etxealdea 7 lurzatiaren xehetasun-azterlanari hasierako onespina ematen diona eta hogeit eguneko epean jendaurrean dagoena.
  2. Erabaki horretan, onarpen horren baldintzak eta betekizunak jasotzen direla, eta udal-arkitektoaren 2022ko ekainaren 6ko txosteneko paragrafo zehatzak hitzez hitz transkribatzen direla.
  3. Administrazioak, ofizioz, akats puntuala antzeman duela txostenaren paragrafo jakin batzuen eta hartutako erabakiaren idazketan, eta 2022ko uztailaren 19ko txostenaren bidez zehaztu du akats hori nola zuzendu behar den prozeduraz.
  4. Errorea egiteko errakuntza bat dela, idazketan akats puntuala, zehazki 2022ko ekainaren 6ko txostenaren 5.2.5, 5.2.6, 6.3 eta 6.4 paragrafoetan eta akordioaren beraren lehenengo puntuan 3-2 eta 4-3 betekizunak.
  5. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea onartzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. artikulua araber, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek
1. *El acuerdo de la Junta de Gobierno Local, de fecha 16 de junio de 2022, por el que se aprueba inicialmente el Estudio de Detalle de la parcela de Bustuntza Etxealdea 7 del A.I.U. “8 Bustuntza”, sometiendo dicha aprobación a exposición pública por plazo de veinte días.*
  2. *Que en dicho acuerdo se recogen las condiciones y requisitos de dicha aprobación, transcribiéndose de forma literal párrafos concretos del informe de la arquitecto municipal de fecha 6 de junio de 2022.*
  3. *Que de oficio, ha sido detectado por la misma, error puntual en la redacción de determinados párrafos del informe así como del acuerdo adoptado, habiendo procedido mediante informe de fecha 19 de julio de 2022, a determinar cómo ha de subsanarse procedimentalmente dicho error.*
  4. *Que el error consiste en un error de hecho, error puntual en la redacción, concretamente en los apartados 5.2.5, 5.2.6, 6.3 y 6.4 del informe de fecha 6 de junio de 2022 y el punto primero, requisitos 3-2 y 4-3 del propio acuerdo.*
  5. *De conformidad con el artículo 109 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, por la que se aprueba el Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, estas podrán rectificar, en cualquier momento, de oficio o a instancia de los*



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

eskatuta, beren egintzetako errakuntza materialak edo egitezkoak.

6. Zehazki, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, lehenengo puntuan, "3 Gioi 2" betekizunean,

DIO:

"Bizitegi-partzelaren muga (pribatua), hego-ekialdean, doitu egin beharko da, eta dokumentuan grafiatutako eraikuntzaren eta bideen banaketalerrora egokitu. Grafiatutako bide horrek erabilera eta jabari publikokoa izan beharko du."

ETA ESAN BEHAR DU:

"Bizitegi-partzelaren (pribatua) hego-ekialdeko muga doitu egin beharko da, eta dokumentuan hego-ekialdeko mutur horretan grafiatutako bideen eta hiruki gisa doan lurzati libre pribatuaren (lorategi pribatua) arteko banaketalerrora egokitu beharko da".

Eta lehenengo puntuan, "4 Gioi 3" betekizuna

DIO:

"Ondoriozko bizitegi-partzela definitzeko doikuntzak.

Bizitegi-partzelaren muga hego-ekialdeko aurrealdean berregokitu behar dela berradierazten da, sestra azpiko eraikinaren lerrokadurara egokituz eta gainerako lurzorua erabilera eta jabari publikoko bideetara bideratuz".

ETA ESAN BEHAR DU:

"Ondoriozko bizitegi-partzela definitzeko doikuntzak.

Bizitegi-partzelaren muga hego-

*interesados, los errores materiales o de hecho existentes en sus actos.*

6. *Concretamente, el acuerdo de la Junta de Gobierno Local, en su punto primero, requisito "3 Guión 2",*

DICE:

"El límite de la parcela residencial (privada) en su lado sureste deberá ser ajustado y adecuarse a la línea de separación de la edificación y el viario grafiado en el documento. Dicho vial grafiado deberá ser de uso y dominio público".

*Y DEBE DECIR:*

"El límite de la parcela residencial (privada) en su lado sureste deberá ser ajustado y adecuarse a la línea de separación definida entre el viario grafiado en el documento en dicho extremo sureste y la parcela libre privada (jardín privado) de forma triangular situada al sur de la edificación".

*Y en el punto primero, requisito "4 Guión 3"*

*DICE:*


"Ajustes de definición de la parcela residencial resultante.

Se reitera la necesidad de reajustar el límite de la parcela residencial en su frente sureste, adaptándose a la alineación de la edificación bajo rasante prevista, y destinando el suelo restante a viario de uso y dominio público".

*Y DEBE DECIR:*

"Ajustes de definición de la parcela residencial resultante.

Se reitera la necesidad de reajustar el



## Ordiziako Udala

2022ITGB0015

ekialdeko aurrealdean berregokitu behar dela berradierazten da, eta hegoaldeko mutur horretan dokumentuan grafiatutako bidearen eta eraikinaren hegoaldeko hiruki forma duen lurzati libre pribatuaren (lorategi pribatua) arteko banaketa-lerrora egokitu behar da”.

7. Udal arkitektoaren 2022ko uztailaren 19ko txostenean zehazten da akatsa zuzentzeak ez dakarrela dokumentuaren funtsezko aldaketarik, eta, ondorioz, ez duela behartzen berriro jendaurrean jartzera.

límite de la parcela residencial en su frente sureste, debiendo este adecuarse a la línea de separación definida entre el viario grafiado en el documento en dicho extremo sureste y la parcela libre privada (jardín privado) de forma triangular situada al sur de la edificación”.

7. *Que en el informe de la Arquitecto municipal de fecha 19 de julio de 2022, se determina que la corrección del error, no supone una modificación sustancial del documento, y en consecuencia no obliga a una nueva exposición pública*

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, idatziarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta horrekin bat egonik, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuta, ondorengo

*A la vista de lo que antecede, examinada la documentación que la acompaña y de conformidad con la misma en uso de las atribuciones que me están legalmente conferidas en virtud del artículo 21.1 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, por medio de la presente*

### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

### **TENGO A BIEN :**

**LEHENENGOA.-** 2022ko ekainaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia zuzentzea, Bustuntzaldeko 7. lurzatiaren xehetasun-azterlanari hasierako onespina ematen diona, ebazpen honen 6. azalpenean adierazitako moduan.


**PRIMERO.-** *Proceder a la corrección del acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 16 de junio de 2022, por el que se aprueba inicialmente el Estudio de Detalle de la parcela de Bustuntzaldea 7, del A.I.U “8 Bustuntza”, en los términos señalados en el exponendo 6 de la presente resolución.*

**BIGARRENA.-** Alkatetzaren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzen dizkion 641/2021 Dekretuaren arabera, horri dagokio xehetasun-azterlana hasieran onestea eta, beraz, akatsa zuzentzea.

**SEGUNDO.-** *De conformidad con el decreto 641/2021, de delegación de competencias de Alcaldía en la Junta de Gobierno Local, corresponde a esta la aprobación inicial del Estudio de Detalle y por lo tanto la corrección del error.*

Hala ere, eta oporraldia amaitu arte Tokiko Gobernu Batzarra deituko ez denez, eta antzemandako akatsa ahalik eta azkarren zuzendu behar denez, dekretu honen bidez egingo da, eta hurrengo Gobernu

*No obstante, y dado que no va convocarse Junta de Gobierno Local hasta despues del periodo vacacional e interesa subsanar lo antes posible el error detectado, es por lo que se procede*



**Ordiziako Udala**

2022ITGB0015

Batzordean emango da horren berri.

*mediante el presente decreto, del cual se dará cuenta en la proxima Junta de Gobierno a celebrar.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jauna: Pilar konturatu zen bere txostenean errore batzuk zeudela eta TGB ez zegoenez, Dekretu bidez egin ziren zuzenketak.


<b><u>6.- Zenbait txosten eta eskaera</u></b>	<b><u>6.- Informes y solicitudes varias.</u></b>



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


**8.- Galde-erreguak**

**8.- Ruegos y preguntas.**





Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*



Ordiziako Udala

2022ITGB0015

<b>Sinatzaileak</b> Firmantes	<b>ALKATEAK / EL ALCALDE</b> Adur Ezenarro Agirre <b>IDAZKARIA / LA SECRETARIA</b> Ainhoa Esnaola Zubeldia
	<b>Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:</b> / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAE29C3.YF5D">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAE29C3.YF5D</a>